

2.1 GAIAREN AURKEZPENA

> Euskal Herria



- Joxeren gutuna



Kaixo, lagunak:

Zer moduz zaudete? Jakin dut lehenengo karpeta bukatu duzuela. Asko ikasi duzue, ezta?

Datozen egunetan bidaia bat egingo dut; Nikaraguara joango naiz. Horregatik, pare bat astean ez duzue nire berririk izango, baina ez pentsa ez dudarik zuentzako ezer prestatu! Ez, ez ni ez naiz zuekin hain erraz ahaztuko.

Aurreko lanei esker, zeuen burua eta zuen familia aurkezten ikasi duzue. Orain, berriz, zuen herriak deskribatzen ikasiko duzue. Zuen herriak ezagutu nahi ditut, horrela, agian, nire hurrengo bidaia, zuen herrietara egingo dut.

Zuen herriak deskribatzen ikasteko gauzatxo batzuk bidali dizkizuet:

Lehenik eta behin, Euskal Herria ezagutzeko bideo bat prestatu dut. Adi-adi ikusi, zuek ere hori egiten ikasiko duzuelako. Herriaren deskripzioa egiten ikasteko, lehenengo, hiztegia ikasi beharko duzue. Gutunarekin batera bidali dizkizuet hiztegi-koadernorako orrialdeak. Gauza mordo daude, lasai, poliki-poliki ikasiko ditugu.

Hala ere, herriaren deskripzioarekin hasi aurretik, proposamen bat egingo dizuet: jolas egingo dugu?

Egin zerrenda bat. Ea nork asmatzen duen zein garraio-bide erabiliko ditudan Nikaraguara iristeko. Hegazkina, itsasontzia...?

Helmugara iristen naizenean izango duzue nire berri!

JOXE

